



# EH Bilduk irtenbideak eskatu ditu Maskuribai kalean segurtasuna bermatzeko

Etxegoen errekaren bidegurutzean eta Goiena eta Maskuribai kaleen arteko bidegurutzean oinezkoen eta txirrindularien joan-etorri segurua bermatzeko mozioa aurkeztu dute

**Araba. 2023-11-06** | Amurrioko EH Bildu udal-taldeak azaroko osoko bilkuran eztabaidatzeko mozioa aurkeztu du, Maskuribai kalean oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna bermatzeko.

Amurriotar askok Maskuribai kalea erabiltzen dute egunero, bai Maskuribaiko industrialdera joateko, bai El Refor kirol-gunera iristeko, bai aisialdirako. Kale horren erdian, adinekoen egoitzako eraikinaren eta oinezkoentzako gunearen hasieraren artean, bi puntu gatazkatsu daude: lehenengoa, Etxegoen erreka zeharkatzen duen zubiak sortutako estugunea da, zubiak espaloia jarraitutasuna eragozten baitu; bigarrena, berriz, Goiena kalea eta Maskuribai kaleko egokitu gabeko tartea lotzen dituen bidegurutzea da, "amaitu gabe" dagoenez, arazoak sortzen baititu oinezkoen, txirrindularien eta ibilgailu motordunen artean

Hori dela-eta, EH Bilduk oinezko, txirrindulari eta ibilgailu motordunen elkarbizitza segurua bermatzeko irtenbideak eskatu ditu mozio bidez. Mozioan, halaber, URA ur-agentziari eskatzen zaio behar beste laguntza eman dezala, maila teknikoan zein ekonomikoan, errekaren bidegurutzean eman daitezkeen irtenbideetarako.

# EH Bildu pide soluciones para garantizar la seguridad en la calle Maskuribai

Presentan una moción para garantizar un tránsito seguro de peatones y ciclistas en el cruce de la regata Etxegoien con las calles Goiena y Maskuribai

**Amurrio. 06-11-2023** | El grupo municipal de EH Bildu de Amurrio ha presentado una moción para su debate en el pleno de noviembre para garantizar la seguridad de peatones y ciclistas en la calle Maskuribai.

Muchos amurrioarras utilizan a diario la calle Maskuribai, tanto para ir al polígono industrial de Maskuribai, como para llegar al complejo deportivo de El Refor, como para su ocio. A mitad de esta calle, entre el edificio de la residencia de mayores y el inicio de la zona peatonal, se encuentran dos puntos conflictivos: el primero es el estrechamiento generado por el puente que atraviesa el arroyo Etxegoien, que impide la continuidad de la acera; y el segundo es el cruce que une la calle Goiena con el tramo no acondicionado de la calle Maskuribai, que al estar "inacabado" genera problemas entre peatones, ciclistas y vehículos motorizados.

Por ello, EH Bildu pide soluciones para garantizar una convivencia segura de peatones, ciclistas y vehículos a motor. Asimismo, en la moción se insta a la agencia URA a prestar la colaboración necesaria, tanto a nivel técnico como económico, para las posibles soluciones en el cruce de la regata.